Egun on guztioi, batzarkideak, mahaiko kideak, hona hurbildu diren komunikabideei eta streaming bidez bilkura hau jarraitzen ari zaretenoi.

Soberan dago esatea gauzak zenbat aldatu diren azken urte honetan. Gaur bilkura honetan jarraitu behar ditugun segurtasun neurriak eta protokoloak horren adierazgarri dira. Martxotik hona bizi izan duguna inflexio puntua izan da, baina **bizi dugun pandemiak gure bizitzako alor guztietan**, eta ez bakarrik ohitura kontuetan, **eragin zuzena** izan du.

Beldurrik gabe esan dezakegu **bizi izan duguna shock bat** izan dela gure gizartearentzat. Pasa den astelehen arte, **1.113 hildako eta 28 mila kutsatu** utzi digu pandemia honek lurralde honetan, Bizkaian eta, seguruenik, **guztiok izan dugu kasuren bat inguruan**. Hemendik. EH Bilduren izenean, **elkartasuna eta babesa** adierazi nahi diegu pertsona guzti horiei. **Bereziki, maite zenuten norbait galdu duzuenoi.**

Inork ez du zalantzan jartzen pandemia honek gure bizitzak goitik behera aldatu dituela eta, horrekin batera, gure lehentasunen ordena ere aldatu dela, izan ere, **pandemia honek aurretik ezarrita zeuden arazo eta krisi desberdinak azaleratu ditu:** gizarte moduan ditugun **arazo sozioekonomikoak** mahai gainean jarri ditu; daukagun **arazo ekologikoa agerian** geratu da; egungo **gobernantza ereduak** bere gabeziak erakutsi ditu, baita ere **gure zaintza sistemak** dituen beharrizanak...

Son muchas las cosas que han cambiado este año, sobre todo desde el mes de marzo. No queremos ni debemos empezar esta intervención sin mostrar nuestra **solidaridad y apoyo** a las personas que **han perdido a alguien cercano** a lo largo de esta pandemia.

Las prioridades han cambiado y asuntos antes olvidados han cobrado relevancia en nuestro día a día. Esta pandemia nos ha mostrado la **cara más cruda y las debilidades de la actual Bizkaia** en medio de una situación que podemos considerar que ha sido un shock para todas y todos. **Esta pandemia ha acelerado las diferentes crisis con las que convivíamos, la socioeconómica, la ecológica, la de los cuidados, la del modelo de gobernanza…**

**Unos problemas acentuados por la pandemia y a los que, desafortunadamente, no se les está dando la respuesta adecuada.**

**Y su gobierno, Sr Rementeria, tampoco se libra de eso.**

Gaur esan diguzu egiten ari zaretela. Nos ha hablado de hechos, pero en realidad nos ha presentado intenciones.

Baina pandemia honek benetan agerian utzi duena Bizkaiko herritarren beharrizanak dira.

Esta pandemia nos ha mostrado que **no todo estaba tan bien en Bizkaia**. La situación extraordinaria que nos ha tocado vivir ha puesto sobre la mesa **carencias** que tenemos como sociedad y que, por desgracia, no son inusuales.

Lo que hemos vivido ha puesto frente al espejo a una **sociedad que no es tan igualitaria como se** decía y, mucho menos, como debería. Porque una sociedad que se basa en la **precariedad, la temporalidad y en la subcontratación** no está preparada para hacer frente a lo que hemos vivido. **A Bizkaia se le han visto las costuras**.

Y hemos visto una sociedad en la que el **trabajo precario y temporal está a la orden del día** y en la que, como consecuencia, la **incertidumbre** es la sensación que más se repite.

Todas y todos conocemos la incertidumbre por la que están pasando muchas personas que no encuentran en las políticas públicas las soluciones a sus problemas.

Porque, ¿se puede permitir una **persona con un contrato temporal** dejar de acudir a su puesto de trabajo **para cuidar de un familiar** que ha sido puesto en cuarentena, si no tiene acceso a una baja? ¿Lo puede hacer **alguien que ni siquiera tiene contrato**, como muchas de las **empleadas de hogar que cuidan** de las personas mayores en sus casas? Porque esas **son realidades** que se están viviendo en estos momentos en Bizkaia. Y de las que usted no ha hablado, Sr. Rementería.

Inori ez zaio arrotz egingo egoera hori. Denok daukagu inguruan norbait azken hilabeteetan oso txarto pasatu duena eta badakiena datorrena ez dela samurragoa izango. Ezohiko egoera honi aurre

**egitea ez da erraza, baina are gutxiago egoera prekario batetik**. Eta, ez dezagun ahaztu, prekarietate horretan **emakumeak direla nagusi**.

Eta horretan, Rementeria jauna, ordezkari politikook badaukagu zer esan eta, garrantzitsuena dena, badaukagu **zer egin**. Eta gaur berriro, asmoak azaldu dikiguzu.

Pertsona horiek eta haien familiek bizi duten **babes eza ezinbestean konpondu behar dugun arazo** bat da. Are gehiago egungo egoeran. Eta hor diseinatzen eta abian jartzen ditugun politika publikoek zeresan handia daukate.

**Zerbitzu publiko duin eta kalitatekoak ezinbestekoak dira** egoera horri aurre egiteko. Baina, zoritxarrez, hor ere baditugu **gabezia larriak**.

Argi ikusi dugu **adinekoentzako Bizkaiko egoitzetan** bizi izan dugunarekin: bigarren olatu honetan, irailaren 26 arte, 62 hildako; pandemia osoan, 354 hildako. Bigarren osasun-larrialdia adierazi zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoan hil diren pertsonen %25 Bizkaiko egoitzetan hil dira. Berriz diot: Euskal Autonomia Erkidegoan koronabirusarengatik hil diren pertsonen laurdena Bizkaiko egoitzetan hil dira.

Horrek zer pentsa eman behar digu. **Eta momentu hau aprobetxatu nahi dugu, egoitzetan, askotan baldintza ez onenetan, lan egiten duten langileei gure babesa eta aitormena helarazteko, egiten ari zareten lana benetan txalotzekoa da.**

Que de 4 cuatro personas fallecidas por la COVID-19 en la CAV, en esta segunda ola, una haya fallecido en residencias de mayores de Bizkaia, nos debería llevar a una **profunda reflexión sobre las carencias** que tenemos como sociedad en relación a **las tareas de cuidados y los cambios inmediatos que requiere Bizkaia**. No se puede decir que su modelo de residencias ha resistido al virus.

Tenemos **mucho trabajo por hacer**. Bizkaia y su sistema de cuidados necesita unos **cambios profundos y no dejarse llevar por la inercia**. Hoy nos ha presentado una serie de ideas para cambiar este modelo. Son una base, y así las tomamos, para esa reflexión profunda sobre el modelo de residencias que desde EH Bildu tantas veces hemos reivindicado. Hace poco discutíamos en este

Pleno y negaban la necesidad de cambios. Desgraciamente ha tenido que llegar la pandemia para que abran los ojos.

La situación es lo bastante complicada como para que desde las instituciones ofrezcamos soluciones reales y solventes. Y es **ahí donde la ciudadanía nos está pidiendo un trabajo conjunto**.

Guk hausnarketa horrekin bat egiten dugu badakigulako une honetan bizkaitarrontzat ziurgabetasuna arazo nagusiena dela eta gu, jaun-andreok, **elkarlanetik abiatzen diren soluzioak eskaintzeko gaude hemen**.

Zuk, Rementeria jauna, ez duzu hitz egin duzu ere elkarlanaz. Hitz egin duzu pertsonez, banakako konpromisoen, eta jauzi eman duzu Aldundiari. Baina pertsonek kolektiboak osatzen ditugu, pertsonek parte-hartzeko aukera izan behar dugu,… azken finean elkarlana ezinbestekoa da. Eta zure diskurtsoan falta bota dugu elkarlanaren beharra.

La actual situación requiere del **trabajo conjunto**, exige que actuemos con **responsabilidad**, con **rigor**, desde el **diálogo** y **sin** caer en la **autocomplacencia** ni en planes basados, volvemos a decir, en la **inercia**. **En ese trabajo conjunto van a encontrar a EH Bildu.**

Así lo propusimos desde un principio, **solicitamos la creación de un foro entre los grupos junteros y la diputación, para hacer un seguimiento a la crisis y compartir aportaciones e ideas.**

¿Cuál fue la respuesta? **Que no era necesario.**

**Ese diálogo** con las instituciones, con la oposición y con los principales agentes que componen la sociedad de Bizkaia **es imprescindible para salir adelante**. Y es algo, señor Rementeria, que durante todos estos meses hemos echado de menos. **Solo se reúnen con quien les da la razón, no soportan la diferencia. Y así nos va, rodillo y más rodillo, nada nuevo en su manera de gobernar como dejó claro en su discurso de la festividad de San Ignacio que se resumía en un "seguir trabajando como hasta ahora".**

Horrek guztiak, noski, kezkatzen gaitu. **Elkarlana ezberdinen artekoa** izan behar da, ez bakarrik gobernuari arrazoia ematen dioenarekin. Baina, Rementeria jauna, **orain arte ez dugu jarrera aldaketarik ikusi**.

Zoritxarrez, pandemia hasi zenetik ez da benetako elkarrizketa bat eman Bizkaian. Ez da egon elkarlanik Aldundiaren eta oposizioaren artean.

EH Bilduk hainbat proposamen egin ditu. Horien artean,

**Adinekoentzako egoitzetako Desisolamendurako Plana**, Osakidetzarekin elkarlanean, egitea proposatu genuen apirilaren 29an. Hilabete beranduago eztabaidatu zen eta EAJk eta PSEk kontra bozkatu zenuten, "jadanik egiten ari zelako". Siempre la misma respuesta: **ya se está haciendo**. Y hoy es el día, 4 meses más tarde, en que las personas residentes de Bizkaia **no pueden pasar un fin de semana en casa o ir a comer con sus familiares**, a pesar de que el protocolo de Osakidetza lo propone.

**Kultura eta kontsumoa sustatzeko bonoak** jartzea proposatu genuen. Berriro eginda zegoela, Bizkaia Aurreran jaso ziren. Gaur da eguna kultura bonuak soilik atera direla. 5 milioietatik, miloi erdi. Kontsumoa sustatzeko bonoak, noizko?

Y esa actitud, señor Rementeria, dista mucho del trabajo conjunto y de arrimar el hombro que exige la situación.

Seguruenik inork ez dauka egoera honetatik ateratzeko formula magikoa, baina oso **deigarria** da gobernu bati **laguntzeko asmoz proposamenak egitea eta** horri inolako erantzun positiborik ez ematea. **Elkarlana oso modu ezberdinean** ulertzen dugula agerikoa da.

Pero nos preocupa, quizá más, que esa actitud no ha sido solo con la oposición, sino que **no se ha reunido ni una vez con agentes sociales** implicados en estos temas, en el caso de las residencias con las asociaciones de familiares, ni con los sindicatos, …

ehbildu

¿Y qué decir de la **ausencia de trabajo conjunto con los ayuntamientos** que son, al fin y al cabo, **quienes han estado en la primera línea** durante los meses más duros de la pandemia, el confinamiento y la gestión de los meses de verano?

**Usted no ha sido capaz de reunirse con alcaldes y alcaldesas de nuestro territorio,** como lo han hecho sus homólogos de Araba y Gipuzkoa. **Una muestra más de su modelo de gobernanza: mí, me, conmigo.**

Hemos visto como **los ayuntamientos han tenido que ir tomando decisiones de manera autónoma** para hacer frente a las consecuencias de la COVID-19. En pleno confinamiento hemos visto a los **ayuntamientos alertando sobre la situación de las residencias** de mayores **mientras el diputado general decía que no iba a ofrecer datos para no crear alarma**; hemos visto a ayuntamientos de las zonas de costa **desbordados para planificar el verano y la gestión de las playas**; hemos visto a **ayuntamientos** que, antes de que desde Eudel se diese algún paso, ya habían puesto **instalaciones municipales al servicio de la comunidad educativa**.

Bizkaiko alkateek sekulako lana egin dute pandemia honetan zehar. **Heldutasuna** erakutsi dute eta, baita ere, **proaktibitatea** batere erreza ez zen egoera baten aurrean. **Baliabideak jarri** dituzte, herrietarako **plangintzak landu**, **herritarrekin hartu eman zuzena**. Doala hemendik **gure esker ona hilabete luze hauetan egindako lanagatik**.

¿Pero cuál ha sido la **actitud de la Diputación** mientras los y las alcaldesas actuaban como podían?

Pues se lo voy a decir, señor Rementeria. Ante unos ayuntamientos exhaustos por la gestión de esta crisis a **la Diputación** no se le ocurre nada mejor que **quitarles recursos**, reteniéndoles los 26 millones de euros de la liquidación del 2019 de Udalkutxa, y reducirles en un 20% la partida a partir de julio. Es decir, cuando los **ayuntamientos necesitan más recursos**, la **Diputación** les pone **palos en las ruedas**.

“Solo pedimos que nos deje usar nuestros remanentes. Es el dinero de la ciudadanía y queremos que se cubran sus necesidades”. **No lo dice EH Bildu**. Es la frase que hace un par de semanas escuchamos al **alcalde de Bilbao**, Juan Mari Aburto, en el Pleno, con respecto a la **decisión del Gobierno de España de retener los remanentes de los ayuntamientos**. Una frase que, seguramente,

más de un alcalde o alcaldesa de Bizkaia hará suya con respecto a la Diputación y el remanente de Udalkutxa.

Izan ere, **udal ezberdinek egindako lana txalogarria** izan da. **Askoz ere baliabide gutxiagorekin krisi soziosanitario batek eragindako ondorioei aurre** egin behar izan diete. Udalei esfortzu ekonomikoa eskatu zaien bitartean, **zertan erabili du Aldundiak** bizkaitarron dirua?

Eta udalez ari garela, aurten Aldundiak **erronka berri bat** du: Usansolo Bizkaiko 113. Udalerria izateko prozesua. Orain dela bi urte esaten zenuten abiapuntua dela udalaren akordioa. Badago akordio hori, orain ikusiko dugu ea benetan Aldundiak bidea ematen dion usansolotarrek aspalditik aldarrikatzen duten udalerria izateko eskaerari. Ea benetan elkarlana dagoen Galdakaoko udalarekin prozesua aurrera eramateko.

**Elkarlanak komunikazioa eskatzen du**. Ezin dugu jarraitu orain arte bezala, gobernuak izan dituen komunikazio arazoekin. Izan ere, azalpen asko faltan bota izan ditugu. Adinekoentzako Bizkaiko egoitzen datuen informazioarekin gertatu zenarekin instituzioen gardentasuna kaltetu dela uste dugu.

Ziurgabetasun egoera batean ezinbestekoa da gizartea zuzenean informatzea. Beste instituzio batzuek egin dute. Gizarte hau nahiko heldua da datu horiek jasotzeko eta egoera kudeatzeko, baina Aldundiak estrategia oker bat hautatu zuen. **Lidergoa eskatzen zuen egoera batean ez dugu, tamalez, horrelakorik ikusi**.

Pandemiak gure bizitzak goitik behera aldatu ditu, baina Aldundiak zituen planetan aldaketa gutxi ikusi ditugu. Eta gaur ere errepikatu dituzu Bizkaia Egiten ziren proiektuak. Salbuespen batekin: egoitzak.

Aldundi honek **aurrera jarraitzen du bere lehentasunak aldatu gabe, inertzian instalatuta**. Egungo egoerarekin, lehen estrategikotzat jotzen zenituzten proiektuekin, inolako hausnarketarik gabe, aurrera jarraitzen duzue. Aurrera jarraitzen duzue Supersurreko obrekin.

Aurrera joan zaitezke, baina inertziagatik.

Eta aurrera jarraitu duzue **Bizkaia Dorrea**ren proiektuarekin, nahiz eta agerikoa den nazioarteko kudeatzaileek ez dutela ikusi proiektu erakargarri baten moduan. Primera licitación desierta; se inicia la segunda licitación, en plena pandemia, con el mismo proyecto, pero con mejoras económicas para los concursantes.

Solo 6 propuestas, se reducen a dos. Ninguno de los grandes nodos internacionales con los que Bizkaia ha trabajado y se supone había contactado, ni Boston, ni Helsinki ni Tel Aviv.

La candidatura con más prestigio, Cambridge International Center de Boston comunica a finales de agosto que "*retira su propuesta, alegando motivos de incertidumbre derivada de la pandemia de la Covid-19 que hacen complicado poder defender su propuesta en los términos deseados*".

Baina berdin du, ez dago elitezko nazioarteko kudeatzailea, baina badago enpresa bat, ekintzailetza arloko esperientziarik ez duena baina oso ezaguna den zuen lagun batek kudeatzen duena.

**Hasitako proiektuak porrot egin du, baina ez duzue hori inolaz ere onartuko**. Covid-19ak, zorigaitzaren barruan, aukera ematen zuen bestelako proiektua egiteko, baina zuek muzin egin diozue.

Hori da inertzian oinarritzen den gobernu baten adibiderik argiena.

Lehentasunak aldatzeko garaia da. **Are gehiago, lehentasun horiek zuenak dira, baina horiek al dira bizkaitarren lehentasunak?**

**Egungo egoerak eragindako arazoei erantzuten dien politikak** abian jartzeko unea da; krisi soziosanitario honek agerian utzi dituen **gabeziei erantzuteko unea** da. Aldundiak **norabide horretan lanean hasten bada EH Bildu elkarlanerako prest** dago.

Elkarlanean sinisten dugu, Rementeria jauna. Egungo egoerak elkarlana eskatu ez, **elkarlana exijitzen du**. Instituzio ezberdinen arteko elkarlana, gobernu eta oposizioaren arteko elkarlana, eragileekin elkarlana. Berriro diogu, inork ez dauka egoera honetatik ateratzeko formula magikorik, baina **inertzia ez da aukera** bat. **Elkarlana bai, baina gauzak aldatzeko, norabidea aldatzeko, hor bai izango gaituzue.**

No, señor Rementeria, **la inercia no es una opción**. La situación ha cambiado demasiado como para mantenernos en posturas como la de hace un año. Ha llegado el momento de agarrar el toro por los cuernos y **priorizar la búsqueda de soluciones a los problemas** que ya son evidentes.

Berriro diot: **EH Bildu elkarlanerako prest** dago eta, gaur hemen, **proposamen zintzoa** egiten dizugu. Uste dugu **ezinbestekoa dela hemen gaudenok elkarlanean aritzea egoera zail honi aurre egiteko**.

**Inertziak alde batera utzi eta egoera berrira egokitu** behar gara. **Aldaketa estrategiko sakonak** egin behar ditugu. **Badakigu egoera ez dela egun batetik bestera aldatuko**, baina orain ereiten hasten ez bagara, aurretik izango dugun etorkizuna ez da batere samurra izango.

Gure gizartean zutabe diren **hiru alor nagusietan lan egiteko unea** heldu da, Rementeria jauna. **Zaintza** esparrua indartzeko unea da; **lan duinean oinarritzen den garapen ekonomikoaren alde** egiteko unea da; **trantsizio ekologikoa bultzatzeko** unea.

Porque lo volvemos a decir, la situación es lo suficientemente complicada como para no actuar y poner unos cimientos sólidos que nos permitan salir de ésta. Unos **cimientos que pasan por una sociedad basada en el trabajo digno, en un sistema de cuidados eficiente y de calidad, y por una transición ecológica** que nos permita encarar el futuro de la mejor manera posible.

**Estos son tres de los ámbitos en los que nos podemos encontrar**, señor Rementeria.

Es el momento de trabajar para conseguir un desarrollo económico basado en el trabajo digno. La **precariedad**, la **subcontratación** y la **temporalidad ya eran un problema**, pero **ahora se han convertido en un obstáculo más** para una situación excepcional. Debemos **buscar soluciones** y ofrecer las condiciones para que el **empleo sea de calidad y no alimentar con dinero público iniciativas que solo ofrecen empleo temporal y mal pagado**. Y en esto **tenemos que empezar por las condiciones de trabajo en los servicios ofertados por la Diputación**, responsabilidad pública, pero gestionados por empresas privadas, se llamen residencias, líneas de autobuses, limpieza, etc. Sí, y también tenemos que revisar la **política de grandes eventos y de atracción del turismo internacional** a cualquier precio, porque hemos visto lo que ha ocurrido este verano, y la situación dramática en la que se encuentra el sector servicios.

Hitz egin duzu Iberdrola, Telefonica, Petronor,… baina ez duzu aipatu langileen baldintza duinak, enplegu egonkorrak,…

**Necesitamos un sistema de cuidados de calidad**. Durante esta pandemia ha quedado en evidencia que **en las residencias** faltan trabajadoras, faltan condiciones de trabajo y de cuidado dignas y que, en cuanto se da una situación excepcional, el sistema no es capaz de hacerle frente. Nos hemos dado cuenta de **lo esencial que son los cuidados**. Es una de las bases de una sociedad avanzada y no puede seguir siendo un ámbito con el que hacer negocio.

Gaur mahai gainean jarri dituzun proposamenak egoitza-erdua aldatzeko proposamenak dira, esango nike goitik behera. Asmoak dira, baina asmo horiek lantzeko eta proposamenak egiteko prest gaude. Eta horretan ere senideen egoiliarren eta sindikatuek parte hartu beharko dute. Guztion artean ekin behar diogu hausnarketa horri. Iniciemos el camino **hacia un servicio de residencias realmente púbico y de calidad**.

Eta haratago, **zaintza erdian kokatu** behar dugu. Onartezina da zaintza emakumeen eskuetan jarraitzea, guztion ardura da, guztion artean egin behar diegu aurre zaintza-lanei era duin batean, zainduak izan behar dutenentzat eta zaintzen dutenentzat. Ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortuko, zaintza-lanak era partekatuan eta komunitarioan gauzatzen ez badira.

**Necesitamos un plan de futuro**. La actual pandemia no puede ser un obstáculo para **diseñar un plan de transición ecológica**. Debemos ser responsables con los recursos naturales y cuidar nuestro entorno y para ello son necesarias unas políticas diferentes a las actuales.

Hitz egin diguzu Hidrogeno Hubi buruz, baina trantsizio ekologikoa ez da proiektu bat, ez da elementu bat, gure bizitzaren arlo guztiak ukitzen dituen praktika politikoa da.

Trantsizio ekologikoak ukitzen ditu:

- **mugikortasun politikak** (eta ez dira bateragarriak trantsizio ekologikoa eta kotxe pribatua bultzatzen duten mugikortasun politikak eta azpiegitura erraldoiak, SuperSurra edo Itsadar azpiko tunela). Hiz egin duzu bidegorriez. Pozten gara. EH Bilduk aspaldian jarri ditu mahai gainen proposamen zehatzak. Eta Bizkai-Getxo larunbatean Biziz bizi egin zuen martxa hori

aldarrikatzen. Por cierto, en ese Grupo de Trabajo tienen que estar Biziz Bizi, grupos ecologistas, etc.

Ha mencionado de pasado el Metro al hospital de Usansolo y a los barrios del Sur de Bilbao. Aquí queremos hechos.

- **gure lehen sektorea ahaztu duzu, hor** politikak behar ditugu **elikadura burujabetza**rantz eman beharreko urratsak egiteko, gure baserritarrak eta arrantzaleak laguntzeko politika, gure kontsumo-ohiturak, ...
- **Hondakinen politikak**. Noizko Bizkaia osora hedatzea hondakin guztien birziklapena?
- **Baso-politika**. Eukaliptoa jaun eta jabe denean, uste al duzue trantsizio ekologiarekin bateragarria denik? Baso politika ezberdina behar dugu, kolore eta espezie anitzeko basoak behar ditugu.
- **Energia berriztagarriak** bultzatu eta energia-kontsumoa murriztu, **ur politikak**,…

Dena ukitu behar dute trantsizio ekologikorako planak eta klima-aldaketari aurre egiteko politikek.

**Kultura ahaztu duzu.** Ez badiogu kulturari benetan duen balioa ematen, ez badiogu duen izaera estrategikoa aitortzen, eta ez baditugu benetan sektorearen biziraupenerako beharrezkoak diren neurriak bideratzen, bizi izan dugun egoera honek desagertzeko zorian utziko ditu hainbat euskal proiektu eta egitasmo kulturalak.

Eta galdetuko diguzu ea **guzti hori zelan ordainduko den**. Zuk, Rementeria jaunak, behin eta berriro aipatzen dituzu **zorpetzea eta Europako funtsak**. Eta horiek beharrezkoak dira. Baina **ez dira nahikoak**. Zorrak geroago ordaindu behar ditugulako, eta diru-sarreren jaitsiera ez da aurtengoa soilik izango. Eta Europako funtsak noiz, zenbat eta zein proiektuetarako izango diren ez dakigulako.

**Hay dinero en Bizkaia**, en la crisis anterior, y en esta también, hay quien se sigue enriqueciendo. Por eso no vale solo endeudamiento y fondos europeos, que son necesarios, pero no suficientes. Hay que abordar el tema de la **fiscalidad a corto y medio plazo** para distribuir la riqueza de una manera **más justa, equitativa y progresiva** y de forma que nos permita **fortalecer los servicios públicos** necesarios para atender de manera adecuada a las necesidades de todas las personas que viven en Bizkaia.

Señor Rementeria, ha llegado el momento de actuar. De **actuar de manera conjunta**, trabajando mano a mano con la **oposición**, con los **ayuntamientos** y con los **distintos agentes** que conforman la sociedad de Bizkaia.

Datozen urteotan, arazo ugariri egin behar diegu aurre, arazo berriei. Beraz, inertzia albo batera utzi behar dugu eta **egoera berriari erantzuteko proposamen berriak** planteatzea ahalbideratuko duen **elkarlanaren aldeko apustua** egiteko garaia da.

Bide horretan aurkituko gaituzu.